

ERRENTAMENDU FINANTZARIOA ZUZENBIDE FISKALEAN¹

Joxe Mari Aizega Zubillaga

Finantza eta Tributu Zuzenbideko Irakaslea EHU/UPV
Aholkulari fiskala.

AURKIBIDEA

1. SARRERA..... 67; 2. FINANTZA ERRENTAMENDUAREN ERAENTZA FISKALA.... 70; 3. SARRERA.... 70; 4. ERRENTAMENDU FINANTZARIOAREN ERREGIMEN FISKAL BEREZIA.... 71; 4.1. BETE BEHARREKO BALDINTZAK.... 71; 4.2. ERREGIMEN BEREZIA- REN ONURA FISKALAK.... 72; 5. LEASINGa ETA BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA (BEZa) 79; 5.1. ONDASUN EMATEA..... 80; 5.2. ZERBITZU PRESTAKUNTZA..... 80; 5.3. EZARTZEN DEN KARGA TASA.... 81; 6. ERRENTAMENDU FINANTZARIOKO KUO- TAK EZ ORDAINTZEAREN ONDORIAK.... 81; 7. ARAUDIA.... 82
--

1. Sarrera.

Errentamendu finantzarioa, edo popularki ezagutzen den bezala *leasinga*, azken urte hauetan indar izugarria hartu duen finantzaketa bide bat da. Baliabide hau ez dute solik enpresa handiek erabili bere inbertsioak finantzatzeko, baizik eta enpresa ertain, txiki eta profesionalen artean ere errentamendu finantzarioak hedapen ikusgarria izan du. *Leasing* kontratuari araudi fiskalak aurrikusten dizkion

1. Gaztelaniazko arrendamiento financiero errentamendu finantzario bezala itzuli da hainbat foru arauetan. Nere ustez finantza errentamendu egokiagoa da hainbat arrazoiengatik. Lan honetan zehar bi terminak baliokide bezala erabiliko dira.

onura fiskalak direla eta ordaindu beharreko zerga kopurua murriztu egiten da, bai Sozietateen gaineko Zerga -sozietateen kasuan-, baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ere, enpresari-pertsona fisiko edo profesionalen kasuan-.

Leasingak, errentamendu kontratu baten bidez, aukera ematen die erabiltzaileari ondasun bat erabil dezaten kontratuan aurrikusitako epe batetan zehar, erabilpen horregatik aldizka kuota bat ordainduaz. Errentaria izaten da errentatzaileari, finantza erakundeari, errentamendu finantzarioan hartu nahi duen ondasuna adierazten diona. Errentatzaileak ondasun hori erosi eta errentariari errentan utziko dio, *leasing* kontratu baten bidez.

Kontratuan iraupen zehatz bat aurrikusten da. Aurrikusitako epea amaitzerakoan erabiltzaileak ondorengo aukerak izango ditu:

- Ondasun berbereragatik kontratua berritu, beste epe berri bat ezarriaz.
- Kontratuan aurrikusitako prezioeragatik ondasuna erosi, erosketa aukera gauzatuaz.
- Ondasuna itzuli errentan utzi dion sozietateari.

Azken finean, errentamendu finantzarioa, bere izenak dioen bezala errentamendu bat da. Bertan errentariak -sozietate, enpresari edo profesionalak- ondasuna erabiltzeagatik errenta bat ordainduko dio finantza erakunde bati, eta ordaindutakoa kontutan edukiko da kontratua amaitzerakoan errentariak ondasunaren jabetza eskuratuko nahiko balu, hau da, ondasuna erosi nahiko balu. Epeko erosketaren ezagutza ere baditu, errentamendu finantzarioagatik ordaintzen diren kuotak, azkenean ondasunaren jabe bihurtzeko ordaindu behar den kopurutik deskontatzen baitira.

Errentamendu finantzarioa, enpresa, enpresari eta profesionalak beraien iharduetarako beharrezkoak dituzten inbertsioak finantzatzeko aukera bat da. Inbertsio hoiek burutzeko aukera ezberdinak aurki daitezke, hala nola, zuzenean dirutan ordaintzea, mailegu bat eskatuaz ordaintzea, errentan eskuratzea -aukera hau zailagoa izango da ez baita askotan aurkituko errentan hartu nahiko litzatekeen ondasuna-, eta azkenik errentamendu finantzario bidez eskuratzea.

Aukera hoietatik onuragarriena zein den erabakitzeko, kontutan izan beharko dira bakoitzak suposatzen dituen onurak eta sortarazten dituen koste eta gastuak. Horrela formalizazio gastuak, notario eta gastu juridikoak, finantza zama, interesak, pizgarri fiskalak e.a. aztertu beharko dira.

Ondorengo lerroetan errentamendu finantzarioaren erregimen fiskala izango dugu aztergai, erregimen fiskal horrek garrantzi berezia izango baitu *leasingaren* aukera beste aukera batzuen aurretik kokatzerakoan.

Finantza errentamendu edo *leasing*ak finantzaketa modu bezala egun duen hedapena ulertu ahal izateko, kontutan eduki behar dira zeintzu diren bere abantaila fiskalak eta zergatik egiten duten inbertsio finantzaketa bide erakargarri bat. Eta ez hori bakarrik, nahiz eta inbertsioen finantzaketaren ikuspegitik eragiketa bat *leasing* bezala definitu baldin badaiteke ere, ez baditu baldintza batzuk betetzen ez du errentamendu finantzario izaera izango, ez errentatzailearentzat eta errentariarentzat.

*Leasing*aren erregimen fiskalagatik, enpresariak bi kontzeptuengatik gutxituko du bere zerga-zama, batetik, ordaintzen dituen interesengatik, eta bestetik, ondasunaren kostea errekuperatzeagatik ordaintzen duenagatik. Ondorioz, zerga-zama kalkulaterakoan gastu bezala erosceta arrunt batean baino kopuru altuagoak izango ditu. Eta gastuak handitzen badira, ihardueraren etekinak gutxituko eta ordaindu beharreko zerga murriztuko da. Laburbilduz, erosceta zuzenarekin alderatuaz, errentamendu finantzarioan gastu bezala kopuru handiagoak izango dira, kontutan izanik gainera gastu horren zati batek ez duela ordainketa bat suposatuko.

Ondoren aztertuko dugun erregimen fiskalaz gain, errentamendu finantzarioari beste abantaila batzuek arrezagutzen zaizkio, besteak beste:

- *Leasing*aren bidez ondasunaren 100a finantzatu daiteke, haseran kopuru garrantzitsu bat ordaindu gabe.
- Nahi den ondasuna, fabrikatzailea, marka, e.a. hauta daiteke. Errentaria da bere iharduera ekonomikorako behar duen ondasuna hautatzen duena. Ondasun hauen jatorriak ez du garrantzirik kontratua sinatzeko unean, inportazio bidez eskuratutako ondasunak ere *leasing*ean har baitaitezke.
- *Leasing*agatik ordaintzen diren kuotak errentariaren beharretara egokitu daitezke. Kuota hauen maiztasuna edozein izan daiteke, eta errentariaren likidezi ezaugarriak kontutan har daitezke.
- Finantzatutako ondasunen ordezipena erretzen du. Zaharkiturik geratzen diren ondasunak beste berriago eta teknologjikoki aurreratuago diren batzuek ordezte ahalmentzen du.

Desabantailen artean eragiketaren kostu finantzario altua aipatzen da. Kostu honek ihardueraren irabaziaz murriztuko ditu. Beste desabantaila bat ondasuna jabetzan ez edukitzeak sortuko luke, errentatzailea ez baita ondasunaren jabe izango erosceta aukera gauzatu arte.

Kreditu erakunde finantzarioak, banketxe, aurrezki kutxa, kreditu kooperatiba eta errentamendu finantzarioko sozietateak izango dira solik errentamendu finantzario eragiketarako burutu ahal izango dituztenak. Erakunde guzti hoiek Espainiako Bankuaren 1990/8 Zirkularrean kontratazio eta bezeroaren babespenari buruz jasotako arauak errespetatu beharko dituzte.

2. Finantza errentamenduaren eraentza fiskala

3. Sarrera

Finantza errentamendua eta fiskalitatearen arteko lotura bi zerga nagusietan ematen da batik bat, alegia, Sozietateen gaineko Zergan eta Balio Erantsiaren gaineko Zergan. *Leasingak* bi zerga hauekin duen erlazioa izango da ondorengo lerro hauetan aztertuko duguna.

Finantza errentamenduaren fiskalitatea aztertzerakoan, kontutan izan behar da Estatu espainiarrean arlo fiskaleko konpetentzi araugilea erakunde ezberdinen artean banaturik aurkitzen dela. Honen ondorioz, araudi berezia izango duten gune fiskal desberdinak aurki daitezke: Euskal Autonomi Erkidegoa osatzen duten Foru lurralde bakoitzak osaturikoa, alegia Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba, Nafarroako Foru Erkidegoak osaturikoa, eta Estatu gainontzeko lurraldeek osaturikoa.

Nolanahi ere, *leasingaren* fiskalitatea aztertzerakoan erakunde eskudun hoiek onarturiko arauen artean ez da ezberdintasun nabarmenik ageri. Sailkapen bat egin beharko bagenu, batetik Euskal Autonomi Erkidegoa osatzen duten Foru Lurraldeak aipatuko genituzke, beste multzo batean Nafarroa, eta azkenik Estatu espainiarreko gainontzeko lurraldeak.. Sailkapen honen arrazoa da, multzo bakoitza osatzen duten erakunde eskudunek *leasingari* eman dioten tratu fiskal ezberdina. Euskal Autonomi Erkidegoa osatzen duten lurraldeak tratamendu berdina ematen diote errentamendu finantzarioari. Aldiz, Nafarroa eta Estatu espainiarreko gainontzeko lurraldeen araudi fiskalak badu aurrekoenarekin alderatuz desberdintasunik.

Finantza errentamenduaren eraentza fiskal bereziaren zatirik garrantzitsuena Sozietaten gaineko Zergan aurrikusten da, nahiz eta aurrerago ikusiko dugun bezala *leasing* kontratu bat sinatu dezaketena ez diren solik pertsona juridikoak izango, pertsona fisikoek ere *leasing* bat kontratatatu ahal izango baitute.

Finantza errentamendu eragiketa baten erregimen fiskala bi motatakoa izan daiteke: orokorra edo berezia. Finantza errentamendu kontratuak baldintza batzuetan betetzen baditu erregimen berezia aplikatuko zaio, aldiz, ukanbehar hoiek ez baditu betetzen, subsidiarioki, erregimen orokorra aplikatuko da. Nahiz eta erregimen orokor-berezi terminuek bestelakorik pentsarazi diezaiguketen, erabilpen praktikoa mailan erregimen berezia izango da gehien erabiliko dena. Eta bera izango da, ondorengo lerroetan aztergai izango duguna.

4. Errentamendu finantzarioaren erregimen fiskal berezia

4.1. Bete beharreko baldintzak

Behin leasing bat kontratatu ezker, erregimen bereziak dakartzkien onuretaz baliatu nahi izatea da zentzuzkoena. Horretarako baina ukanbehar batzu bete beharko dira:

1.- Ondasun moeta: errentamendu finantzarioan ondasun higikor eta higiezinak hartu ahal izango dira.

2. Ondasunen erabilpena: lagatzen diren ondasunak, jarduera enpresarial edo profesional bat burutzeko erabili beharko dira².

3. Kontratuaren iraupena: kontratuak gutxienezko iraupen bat izan beharko dute, **ondasun higikorrak** baldin badira **bi urtetako** iraupena, eta **higiezinak** baldin badira **10 urtetakoa**.

4. Kuotak: Ondasuna errentan hartzeagatik periodikoki kuota bat ordainduko da. *Leasingeko* kuotak kontratuetan adierazi beharko dira, bereiziz errentatzailerak -finantza erakundeak- ondasunagatik ordaintutakoa errekuuperatzeko ordaintzen dena eta finantza erakundeak exigituriko finantza zama -interesak-.

Errentatzaileari ondasunaren kostua berreskuratzeko ordaintzen zaion zatia- ren zenbatekoa, berdin mantendu edo handituz joan beharko da kontratuaren irau- naldian zehar.

5.- Erosketa aukera: *leasing* kontratuak, erosketa aukera bat aurrikusi beharko du, ondasunaren erabiltzaileak kontratuaren amaieran ondasunaren jabe egiteko erabili ahal izango duena.

Hauexek dira errentamendu finantzarioak dituen onura fiskaletaz baliatu ahal izateko, bete beharreko baldintzak.

Errentamendu finantzario kontratu batek baldintza hauek beteko ez balitu, Sozietateen gaineko Zergan aurrikusten den beste erregimen ezberdin baten menpe geratuko litzateke. Aipatu kontratu hauei erregimen zorrotzago bat aplikatu- ko zaie, gastu kengarria, kontratuaren objektu diren ondasunei dagokien amorti- zazio kuotaren baliokidea izanga baita. Aldiz finantza zama kontratuak duen

2. Sozietateen gaineko Zergak, 26/1988 Legera igortzen gaitu, "sobre Disciplina e Intervención de las Entidades de Crédito" deritzan legera. Bertan esanbidez ondorengo jarduerak aipa- zen ditu: nekazal, arrantzu, salerosketa, industri, artisautza, zerbitzu eta jarduera profesionalak.

iraupen epearen barnean banatu beharreko gastua izango da. Erregimen orokorren babesean kengariak diren gastu kopurua nabarmenki murriztu egiten da, eta ikuspegi fiskaletik errentamendu finantzarioak izango lituzkeen abantailak ere murriztu egiten dira.

4.2. Erregimen bereziaren onura fiskalak

Erregimen berezi horren azterketarekin hasi aurretik, beharrezkoa gertatzen da errentamendu finantzarioagatik ordaintzen den kuota bere osagai ezberdinetan zatitzea, zati bakoitzak tratu fiskal berezia izango baitu.

4.2.1. Kuotaren osagaiak:

Kuota bat ondorengo osagaien batuketak osatzen du:

a) **Interesak:** finantza zama da. Ondasun hori errentan edukitzeagatik, alegia bere finantzaketagatik, banketxe, aurrezki kutxa edo bestelako kreditu erakunde bati ordaintzen zaion interes kopurua. Interes hori diru-merkatuaren egoerak baldintzatuko du.

b) **Amortizagarriak diren** ondasunengatik, errentatzaileari ondasunagatik ordaintutakoa errekupeartzeko ordaintzen dena.

c) **Amortizagarriak ez diren** ondasunengatik, errentatzaileari ondasunagatik ordaintutakoa errekupeartzeko ordaintzen dena.

d) **Balio Erantsiaren Zergagatik** ordaintzen dena.

Ikusiko dugun bezala osagai bakoitzak fiskalki tratu ezberdina izango duenez, osagai hoietan oinarrituz aztertuko dugu errentamendu finantzarioak duen erregimen fiskala.

4.2.2. Errentamendu finantzarioaren tratamendua jardueraren irabaziak zergapetuko dituzten zergetan

Arestian aipatu dugun bezala, errentamendu finantzarioa batik bat pertsona juridikoei bideraturik dago. Ez gaitu arritu behar, ondorioz, erakunde honen arauketa Sozietateen gaineko Zergan aurkitzea. Nolanahi ere pertsona fisikoak ere badute aukera, ondasunak *leasingean* eskuratzeko, beti ere pertsona fisiko hoiak jarduera enpresarial edo profesional bat burutzen dutenean. Kasu horretan Sozietaten gaineko Zergan jasotzen den erregimen hau, bereizitasun batzuekin baldin bada ere, pertsona fisikoei ere aplikatuko zaie.

4.2.2.1. *Kuotaren osagaien tratamendua:*

Zein dira ondorioz leasingatik ordaintzen diren kuoten ezaugarri fiskalak?

a) **Interes** kontzeptuan ordaintzen den zatia, alegia zama finantzarioa, zerga ondorioetarako gastu kengarritzat hartuko da. Horrela, gastu bezala jasoko da kontabilitatean, eta gainontzeko gastuei gehituaz jarduera ekonomikoaren mozkina lortzeko balioko du.

b) **Amortizagarriak diren** ondasunengatik, errentatzaileari ondasunagatik ordaintutakoa errekuiperatzeko ordaintzen dena. Zati hau ere gastu kengarria da, baina bereizitasun batzuekin:

Gastu kengarritzat har daitekeen kopuruaren zenbatekoak **gehienezko muga** bat izango du: ezingo da handiagoa izan, ofizialki onarturiko tauletan jasotzen den amortizazio koefiziente linealaren bikoitza, ondasunaren balioari aplikatzeak dakarren emaitza baino.

Ondasun bakoitzari dagokin amortizazio koefizientea eta epea Sozietateen gaineko Zergaren arauetan aurrikusten dira. Koefiziente hori izango da errentan hartu den ondasunari aplikatuko zaiona, dagokion amortizazioa kalkulatzeko. Amortizazio kopuru horren bikoitza izango da zerga ondorioetarako kengarritzat hartuko dena.

Soberakina, hau da, gastu kengarri bezala deduzitu gabe geratzen dena, gehenezko muga hori gainditzen delako, hurrengo zergaldietan deduzitu ahal izango da, beti ere aipatu muga berdinekin.

Amortizazio kopuruaren bikoitza gastu kengarritzat hartzea izango da errentamendu finantzarioarentzat onura fiskal berezia suposatzen duena. Errealitatean jasan ez den gastu bat gastu fiskal bezala hartzeak, enpresaren urteko mozkinengatik enpresak ordaindu beharreko zerga karga gutxitzea suposatuko baitu.

Kuotaren zati hau deduzitu ahal izango da, ondasuna martxan hasteko kondizioetan jartzen den unetik aurrera. Une horretatik aurrera kalkulatu beharko dira, aurreko muga horiek.

Enpresa txiki eta ertainen kasuan (PYME), kontzeptu honengatik kastu kengarri bezala deduzitu ahal izango da, aipaturiko amortizazio koefiziente linealaren bikoitzari 1,5 koefizientea ezartzeak ematen duena. Hau da, amortizazio koefiziente linealaren hirukoitza deduzitu ahal izango da³.

3. EAE osatzen dute Foru Lurraldeetako Sozietateen gaineko Zerga arautzen duten Foru Arauen arabera, enpresa txikia izango da ondorengo ukanebharra betetzen dituenan:

c) **Amortizagarriak ez diren** ondasunengatik, errentatzaileri ondasunagatik ordaintutakoa errekupezatzeko ordaintzen dena.

Kontratuaren objektua lurrak edo ondasun naturalak, orubeak edo beste aktibo amortizaezin batzuk direnean, ondasunaren kostua errekupezatzeko ordaintzen dena ez da gastu kengarrizat hartuko.

Leasing kontratuak finantzatzen duen ondasuna zati batean amortizagarria baldin bada eta beste zati batean amortizaezina -adibidez, eraikuntza bat finantzatzen bada-, bakar-bakarrik ordaintzen den kuotatik amortiza daitezkeen elementuei dagokien proportzioa hartuko da kengarrizat. Zati hori errentamendu finantzario kontratuan bereizirik adierazi beharko da.

d) Balio Erantsiaren Zergagatik ordaintzen dena.

Kuotaren zati honen azterketa geroagorako utziko dugu, azterketa berezia merezi baitu.

Orain arte aipaturiko errentamendu finantzarioaren tratamendu fiskala Ogasun ezberdinetan berdintsua da. Leasing kontratuek Estatu espainiar osoan kontzeptualki esanahi berdina dute. Horren ondorioz erregimen berezira edo orokorrera loturik geratzeko bete beharreko baldintzak berdinak dira kontratua edonon sinatzen delarik ere.

...

– Ustiapen ekonomiko bat burutu.

– Eragiketa bolumena 715 milioi pezeta eta ibilgetu garbia 286 milioi pezeta baino handiagoak ez izatea.

– Plantilan 50 langile baino gehiago ez izatea.

– Goiko baldintzetako bat betetzen ezduen beste enpresa batek 100eko 25tik gorako partaidetza, zuzenean edo zeharka, ez izatea enpresa horretan.

Enpresa ertaina izango da ondorengo ukanebharrak betetzen dituenean:

– Ustiapen ekonomiko bat burutu.

– Eragiketa bolumena 2.860 milioi pezeta eta ibilgetu garbia 1.430 milioi pezeta baino handiagoak ez izatea.

– Plantilan 250 langile baino gehiago ez izatea.

– Goiko baldintzetako bat betetzen ezduen beste enpresa batek 100eko 25tik gorako partaidetza, zuzenean edo zeharka, ez izatea enpresa horretan.

Lurraldeen arteko ezberdintasunik nabarmenenak, fiskalki amortizagarria den gehienezko kopurua kalkulatzeko eta enpresa txiki edo ertain konzeptuan emango dira batik bat⁴.

Desberdintasun hauek ondorioa izango dute kuotak zein neurritan deduzitu daitezkeen kalkulatzekoan, eta 1,5 koefizientea zein enpresa txiki edo ertainek erabili dezaketen erabakitzerakoan.

4.2.2.2. *Leasinga, Sozietaten gaineko Zergan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan (PFEZa)*

Aipatu dugu jadanik ondasun bat errentamendu finantzarioan hartu ahal izateko ez dela beharrezkoa enpresa, pertsona juridiko bat izatea, baizik eta pertsona fisikoek ere, banakako enpresari eta profesionalek ere ondasunak *leasingean* har ditzazkeela.

Egia da, enpresa-pertsona juridikoak (S.A., S.L...) izango direla normalean errentamendu finantzario bat burutuko dutenak Baina aukera hau zabalik dago enpresa txiki -banakako enpresari batek osaturikoak-, ondasun herkidego eta profesionalentzat.

Lehenengoan kasuan, hots pertsona juridikoen kasuan, errentamendu finantzarioaren erregimen fiskalak urteko mozkinengatik ordaintzen den Sozietateen gaineko Zergan izango ditu ondorioak. Ondorio hoiek arestian aipaturikoak izango dira.

Aldiz, bigarren kasuan, pertsona fisikoen kasuan PFEZan izango ditu ondorioak. Kasu honetan PFEZaren barnean jarduera enpresarial eta profesionalen etekinen kalkulua aztertu beharko da.

Jarduera enpresarial eta profesionalen etekinak kalkulatzeko metodo ezberdinak erabili ahal izango dira:

- Zuzeneko zenbatespen edo estimazio zuzena.
- Zenbatespen objetiboa koefiziente bidez.
- Zenbatespen objetiboa zeinu, indize eta modulo bidez.

Metodo hauetako bakoitza sakonean garatuaz gero, errentamendu finantzario eragiketaren baten ikuspegitik, kuotaren kengarritasuna ondorengo izango da:

- Zuzeneko zenbatespena:

4. Estatuko Sozietateen gaineko Zergaren 1995/43 Leagearen arabera tamaina txikiko enpresa bat izango da eragiketaren bolumena 250 milioi baino txikiago denean. (122. art.).

Enpresari edo profesional batek bere etekinak zenbatespen metodo hau jarraituz kalkulatzeko baldin baditu, *leasing*eko kuotek Sozietateen gaineko Zergan duten tratu fiskal berdina izango dute eta terminu berdinetan izango dira kengarri.

Lojikoak da ondorio hau, zenbatespen zuzena aplikatzeak, pertsona juridikoen modura, Merkatal Kodea eta Kontabilitate Plan Orokorra jarraituz kontabilitate egoki eta zuzen bat eramatea galdatzen baitu. Ihardueraren irabaziak kalkulatzeko urteko sarrerak, eta sarrerak lortzeko beharrezkoak izan diren gastuak hartuko dira kontutan. Gastu hoiaren artean *leasing*gatik sortzen diren gastu kengarriak aurkituko dira.

– Zenbatespen objetiboa koefiziente bidez:

PFEZa arautzen duten arauetan aukera ematen zaio enpresari edo profesionalari bere etekinak zenbatespen objetibo bidez kalkulatzeko. Zenbatespen moeta hau ez da, zenbatespen zuzenean bezala, jardueraren irabazi errealetan oinarritzen, baizik eta erreferentzi objetiboak edukitzen ditu kontutan.

Estimazio objetibo honen barnean bi sistema aurrikusten dira: koefiziente bidez kalkulatzeko dena eta indize, modulo edo zeinu bidez kalkulatzeko.

Koefiziente bidezko zenbatespenean, urtean zehar izandako etekin garbia kalkulatzeko, ez da zenbatespen zuzenean bezazala *sarrera ken gastuak* egingo, baizik eta izandako sarrerak jasandako gastu guztiekin murriztu beharrean, soilik gastu tasatu batzu izango dira deduzitu ahal izango direnak. Gastu hoiak dira: pertsonalaren gastuak, merkatalgaien kontsumoa, energia eta ur kontsumoa, iharduera burutzen den lokalen errentamendua, besteen kapitalen interesak eta finantza zama, aseguruak, estatalak ez diren tributuak, konponketa gastuak eta beste enpresek egindako lanagatik ordaindutakoa.

Horrela izanik, zenbatespen objetiboaren kasuan, etekinen estimazio moeta honek ez du ahalmentzen ondasunen depreziazioa, alegia amortizazioa, deduzitzea, baina bai interesari dagokien kuotaren zatia. Ondorioz, errentamenduagatik ordaintzen den kuotatik interesak izango dira soilik deduzitu ahal izango direnak.

– Zenbatespen objetiboa zeinu, indize eta modulo bidez.

Kasu honetan, zergapetuko diren urteko etekinak kalkulatzeko, Tributu Administrazioak arau bidez erabakitzen dituen jarduera ekonomikoak burutzen dituzten enpresa edo enpresariak, arau bidez onarturiko zeinu, indize edo moduloak aplikatu beharko dituzte.

Estimazio moeta hau jarraituz, ez dira kontutan hartzen zein izan diren urteko diru sarrerak, edo sarrera hoiak lortu ahal izateko jasan diren gastuak.

Jarduera bakoitzak aurkezten dituen zeinu, indize edo moduloen zenbatekoa izango da ordaindu beharreko zerga kalkulatzeko erabiliko dena. Ondorioz, zenbatespen moeta honetan ez dago aukerarik *leasing*agatik ordaindutako kuotak deduzitzeko, ez interesak ezta ondasunaren kostea errekuperatzeko ordaintzen dena ere.

4.2.3. Beste onura fiskalak

Ondoren aipatuko ditugun aukera fiskal onuragarri hauek ez dira sortu eta onartu bereiziki errentamendu finantzarioarentzat, baizik eta orokorki aurrikusten diren aukerak dira. Hala ere, kasu batzuetan espreski aurrikusten delako eta beste kasuetan horrela interpretatu daitekeelako, errentamendu finantzario bidez gauzatu-tako inbertsio bat aukera hauetaz baliatu ahal izango da.

4.2.3.1. *Kenkaria aktibo finko material berrietan inbertitzeagatik*

Sozietateen gaineko Zergan aurrikusten da, aktibo finko materialetan, terre-noak salbu, egindako inbertsioen portzentai bat kuota likidotik deduzitu daitekeela.

Kenkari hau erabili ahal izateko, egindako inbertsioak ukanbehar batzu bete beharko ditu. Bete beharreko ukanbehar hoiere artean aipa daitezke: aktibo berriak izatea, aktiboek gutxienerako amortizazio epe bat izatea, inbertsioak bolumen bat gainditzea, aktibo horiek kontabilitatean jasotzea eta inbertsio hori enpresan epe minimo batetan zehar mantentzea.

Ez gara hasiko ukanbehar bakoitza aztertzen, kasu bakoitzean aztertu beharko baita burutzen den inbertsioak biderik ematen duen ala ez, portzentai hori deduzitu ahal izateko.

Errentamendu finantziariaren kasuan, esanbidez aurrikusten da, honela eskuratutako ondasunek, eraikinak ezik, eskubidea izango dutela kenkari honetara biltzeko. Ezaugarri honek aurreko araudiarekin alderatuz berrikuntza bat suposatzen du, lehen ezin baitzen dedukzio hau erabili inbertsioa *leasing* bidez egiten zenean. Aldiz, orain indarrean dagoen araudiarekin, aukera hori erabili ahal izango da.

Inbertsioagatik kenkariaren kasuan, lurralde arruntean errentamendu finantzario bidez burutzen diren inbertsioak kenkari honetara biltzeko eskubidea izango dute, beti ere horrela aurrikusten bada urteroko Aurrekontu Legean. 1997. urterako ez da aurrikusi aukera hau, nahiz eta etorkizunean erabil ahal izango den.

Euskal Autonomi Erkidegoan aipatu portzentai hori indarrean dago eta 100eko 15ean dago ezarria. Kenkari hau, foru arauetan jasotako beste kenkariarekin batuz lortzen den emaitzak ezingo du kouta likidoaren 100eko 40 baino handiagoa izan. Kenkariari lotutako ondasuna, errentamendu finantziarioan eskuratzen dena,

bost urtetan edo, laburragoa bada, bere erabilgarritasun epe osoan, martxan egon beharko da sujetu pasiboaren enpresan, ondasun hoiek hurigarranezi eskualdatu, errentan eman edo laga gabe.

Nafarroan aipatu portzentaia 100eko 10a da. Kenkariaz baliatu ahal izateko beharrezkoa da errentariak kontratuan erosketa aukera erabiltzeko konpromezua hartzea. Portzentai hau 100eko 15a izan daiteke, sortu berriak diren erakundeek ihardueraren hasera arte eginiko inbertsioengatik, beti ere erakunde sortu berriei ematen zaizkien hobarrietaz baliatu ez bada ⁵.

4.2.3.2. *Salbuespena berrinbertitzeagatik*

Sozietateen gaineko Zerga arautzen duen araeuan aurrikusten den aukera honen ezarpenaren ondorioz, aktibo finko materiala, aktibo finko inmateriala eta zenbait inbertsio finantzarioen eskualdaketen ondorioz lortzen diren etekinak ez dira epealdi horretan zergapetzen, baizik eta zergapen hori ondorengo epealdietaraino atzeratzen da. Beti ere jasotako etekinak aipaturiko edozein hiru aktiboetan berrinbertitzen baldin badira. Zergapenaren atzerapen horretaz baliatu ahal izateko ukan-behar hori bete behar da, mozkinak berinbertitu egin behar dira hurrengo urteetan.

Salbuespen, edo hobeki esanda zergapenaren atzerapen honekin lortu nahi da, enpresa-irabazien fiskalitatea ahalik eta neutralena izatea eta, aldi berean, fiskalitateak ondasunen birjarpen erabakienzat oztoporik ez suposatzea ⁶.

Orokorki aurrikusten den aukera honetara bildu ahal izateko, beharrezkoa izango da arestian aipaturiko edozein elementuen eskualdaketaetik lortutako kopuruak berrinbertitzea. Berrinbertitzeko epea izango da, ondasuna eman edo eskueran jarri aurreko urtebetetzea eta ondorengo hiru urtetakoa, alegia, danetara lau urtetako epea.

Berrinbertitzeagatik salbuetsirik geratuko diren etekin hauek ibilgetu material, inmaterial edo finantzariotik eratorri beharko dira. Batetik, etekinen jatorria mugatzen da, eta bestetik, berrinbertsioa gauzatu behar den aktibo moeta ere mugatzen da. Ibilgetu material, inmaterial edo ta edozein erakunderen kapitalean 100eko 5a baino partaidetza handiago bat ematen duten inbertsioetan.

Nahiz eta esanbidez ez den errentamendu finantzarioa aipatzen, *leasinga* aktibo inmaterializat hartzen da. Kontabilitate-Plan Orokorrean 21. azpi-taldean jasotzen da, 217. kontuan, "Finantz errentamenduko erregimeneko ondasunen gai-

5. Nafarroako Sozietateen gaineko Zergan, enpresa sortu berriei ukan-behar batzuk beteaz gero, urteko errentei dagokien kuota osoaren 100eko 50ren hobaria izan dezakete.

6. JIMENEZ ORUNA, Jesús. "Reinversión de beneficios extraordinarios". In: *Guía del Impuesto sobre Sociedades en el País Vasco*, CISS, Valencia, 1997, 238 orr.

neko eskubideak” izenburu duen kontu kontablean. Ondorioz, berrinbertsioak suposatzen duen abantailaz aprobeitza ahal izateko berrinbertsioa *leasing* bidez egiteko, ez dago inolako oztoporik. Berrinbertsioan aipaturiko edozein elementu hoiek konbinatuz egin daitezenez, errentamendu finantzarioa ere beste aukera bat da.

Ikusi dugu arestian, aktibo finko materialetan inbertitzeagatik kenkari bat aurrikusten dela. Bertan aurrikusten da kenkaria bateragarria dela amortizazio askatasunarekin, amortizazio azkarrarekin eta berrinbertsio gerorapenarekin. Ikusi dugu *leasing*ak duen abantaila fiskaletako batek amortizazio azkarraren ondorio berdinak suposatzen dituela (“amortizazio kopuruaren bikoitza gastu kengarritzat hartzea izango da errentamendu finantzarioarentzat onura fiskal berezia suposatzen duena”). Errentamendu finantzario bidez egindako inbertsioek kenkarirako eskubidea izango dute, kenkaria eta berrinbertitzeagatik aurrikusten den gerorapena bateragarriak baitira.

Aipaturiko aukera fiskal onuragarri hauek Sozietaten gaineko Zergan aurrikusten dira, hau da, pertsona juridikoen irabaziak zergapetuko dituen Zergan. Horrek ez du esan nahi, pertsona fisikoek ezingo direnik aukera hauetaz aprobeitxatu. PFEZa arautzen duen legeak esanbidez aurrikusten du, jarduera profesional, enpresarial edo artistikoak burutzen dituzten sujetu pasiboetarako aplikagarri izango zaizkiela, inbertsio enpresariala sustatzeko Sozietateen gaineko Zergan pertsona juridikoentzat ezartzen diren pizgarri berberak, muga eta portzentai berdinekin⁷. Hori horrela izanik, kontutan izan behar da aukera hori soilik erabili ahal izango dutela, bere oinarri ezargarria estimazio zuzena erabiliz kalkulatzeko dutenak.

Kasu honetan, ez dago ezberdintasunik erakunde eskudun ezberdinek onartutako arau fiskaletan. Denek tratamendu berdina ematen diote berrinbertitzeagatik lortu daitezkeen geroratze honi.

5. Leasing-a eta balio erantsiaren gaineko zerga (bez-a)⁸

Errentamendu finantzarioa BEZari loturik geratuko da, zerga horren egitate zergagarriaren barnenan koka baidaiteke. BEZak enpresari eta profesionalak bere jardueretan aritzean egindako ondasun emate eta zerbitzu prestakuntzak zergapetzen ditu. Horrela, bi egitate hoiek dira BEZaren egitate zergagarria osatzen dutenak: ondasun ematea eta zerbitzu prestakuntza.

7. PFEZa arautzen duten arau ezberdinen 78.artikuluko 5. lerroaldia. Arauak, Gipuzkoan 13/1991 Foru Araua, Bizkaian 7/91 Foru Araua, Araban 24/1991 Foru Araua, Nafarroan 6/92 Foru Legea eta gainontzeko Estatuko Lurraldeetan 18/1991 Legea.

8. BEZa arautzen duten arauak: Gipuzkoan 102/1992 Foru Dekretua, Bizkaian 7/1994 Foru Araua, Araban 12/1996 Foru Dekretu Araugilea, Nafarroan 102/1992 Foru Legea eta gainontzeko Estatuko lurraldeetan 37/1992 Legea.

Errentamendu finantzario kontratu batetan errentariak ordaintzen dituen kuotek BEZa jasan beharko dute, errentatzailea BEZa jasanaraztera legez obligaturik baitago. Errentatzaileak berak ondasun hori erosi zuenenan BEZa jasan zuzenez, BEZaren mekanikaren arabera, ondasun hori *leasingean* errentatzen duenenan kobratzen dituen kuotek BEZa sortzapetuko dute.

Argitu beharreko galdera izango da, zein kontzeptutan sortzapetezen den BEZa errentamendu finantzario kontratu batetan, ondasun emate kontzeptuan ala zerbitzu prestakuntza kontzeptuan.

Printzipioz, errentamendu finantzario kontratu batek aipatu edozein kontzeptuengatik sortzapetu dezake BEZa, bai *leasing* kontratu hori ondasun emate bat delako edo bai zerbitzu prestakuntza bat aurrikusten delako. Izaera bikoitz bat agertzen du.

5.1. *Ondasun ematea*

Errentamendu finantzario kontratu batek, BEZaren ikuspegitik ondasun emate bat suposatuko du, errentaria ondasunarengan, erosketa aukera erabiltzera konprometitzen denen. Errentaria, kontratuan aurrikusten den uanean erosketa aukera erabiltzeko hitz ematen badu, orduan ondasun emate baten aurrean egongo ginateke.

Konpromezu hori baldin badago BEZa une horretan sortzapetzen da, eta BEZa ordaintzeko obligazioa sortuko da. BEZaren oinarri ezargarria ondasunaren balioa izango da, eta ez dira oinarri ezargarri horren barnean sartuko errentamenduan zehar ordainduko diren interesak.

Finantza erakundeak faktura bat egingo du, bananduaz, batetik, ondasunaren kostea, eta koste horren gain ordainduko den BEZa, eta bestetik, finantza zama, interesak. Azken hauek BEZa ordaintzetik salbuetsirik geratuko dira.

BEZa une horretan sortzapetu eta ordainduko denez, aurrerantzean ordainduko diren errentamendu finantzario kuotek ez dute BEZarik eramango. Zerga haserako momentuan ordaintzen denez, etorkizunean eman daitezkeen zerga tasen aldaketak ez dute efekturik izango, ordaintzen diren kopuruetan⁹.

5.2. *Zerbitzu prestakuntza*

Errentamendu finantzario kontrato batek, BEZaren ikuspegitik zerbitzu prestakuntza bat suposatuko du, errentaria ondasunarengan, erosketa aukera erabil-

9. Pentsa dezagun kontratu bat 1992an sinatzen dela, eta errentariak erosketa aukera erabiltzeko konpromezua hartzen duenez, BEZa haserako une horretan 100eko 16an ordaintzen dela. Demagun bi urte barru BEZaren tasa 100eko 18 igotzen dela. Nahiz eta leasinga oraindik indarrean egon, tasa igotzeak ez luke ondoriorik izango ordaindu beharreko kuotetan.

tzera ez denean konprometitzen. Errentariak, ez badu hitz ematen kontratuan aurrirakosten den unean erosketa aukera erabiltzeko, zerbitzu prestakuntza baten aurrean egongo ginateke.

Kasu horretan BEZa ez da sortzapetuko haserako une horretan, baizik-eta *leasing*गतik kuota bakoitza ordaintzen denean sortzapetuko da. Ondorioz, kuota bakoitzak hiru osagai izango ditu, kontratuaren printzipala, interesak eta BEZa. Zerga kalkulatzeko oinarri ezargarria printzipal eta intersek osatuko dute.

Erabiltzaileak, errentariak, ez du BEZa haseran ordaintzen, kontratuak irauten duen bitartean ordaintzen diren kouta bakoitzagatik jasango du BEZa.

Kasu honetan BEZa kalkulatzeko interesak ere kontutan hartzen direnez, ondasun emate kasuan ez bezala, kontratuaren iraupenean zehar BEZagatik gehiago ordainduko du zerbitzu prestakuntzaren kasuan. Gehiago ordaintzen da, baina ordainketa hori denboran zehar luzatzen da.

Bestetik, aplikatu beharreko BEZaren tasa, sortzapen unean indarrean dagoena denez, eta sortzapen hau errentamenduagatik ordaintzen den kuota bakoitzarekin ematen denez, kontratuaren iraupenean zehar tasa aldatuko balitz, aldaketak ordainduko beharreko kouten gain eragina izango luke. Posible da, horrela kontratu bakar batetan zehar zerga tasa ezberdinak aplikatzea.

5.3. Ezartzen den karga tasa

Errentamendu finantzario eragiketa bati aplikatuko zaion BEZaren karga tasa ezberdina izango da, eragiketa ondasun emate edo zerbitzu prestakuntza izaera baldin badu.

Ondasun emate bat baldin bada, alegia, BEZa haserako unean ordaintzen baldin bada, aplikatuko den karga tasa ondasunari dagokina izango da. Finantzatzen dena ondasunak berez BEZan karga tasa murriztu bat baldin badu, ondasun hori errentamendu finantzario bidez eskuretzeagatik ez da aldatzen ezagarri zaion tasa portzentuala.

Aldiz, aurrez ikusitako ezaugarriak betetzen dituelako eragiketak zerbitzu prestakuntza izaera baldin badu, orduan koutaren sortzepena ematen den unean indarrean dagoen tasa orokorra aplikatuko zaio, eta ez da kontutan izango ondasunari berez dagokion tasa. Egun tasa hori 100eko 16a da.

6. Errentamendu finantzarioko kuotak ez ordaintzearen ondoriak

Errentamendu finantzarioko kuotaren bat, osoa eta partzialki, ordainduko ez balitz, edo ta errentariak bere iharduera bertan behera utziko balu, erakunde

errentatzaileak aukera izango luke, kontratuan horrela aurrikusi bada, mugaeguneratu eta ordaindugabeko kuoten ordainketa galdatzeko, eta baita oraindik mugaeguneratzeko dauden kuotak ere.

Mugaeguneratu gabe eta ordaintzeko kouten ordainketa galdatau ordez, errentan utzitako ondasuna itzultzea galda dezake. Kasu horretan ondasuna itzultze-arekin, mugaeguneratu eta ordaindu gabe dauden kuotak exijituko lituzke, eta baita oraindik mugaeguneratzeko dauden kuoten portzentai bat kalte-ordain bezala. Errentamendu finantzario kontratuan ere aurrikusten da, ordaindu ez den kouta hoiak ordaindu arte iragandako egunengatik interesak kobratzeko aukera.

Errentatzaileak kalte-ordain bezala jasotzen dituen kopuruak ez dira BEZa kalkulatzeko oinarri ezargarrian sartuko, horrela aurrikusten baita BEZaren araeuan¹⁰. Errentatzaileak prestaturiko zerbitzuen oinarri ezargarria osatuko dute solik, kontraprestazio moduan ordaintzen diren kopuruak, baina ez kalte ordain bezala jasotzen diren, eta bere izaera eta funtzioagatik zergari lotuak dauden eragiketen kontraprestazio bezala ordaintzen ez direnak. Ondorioz, kopuru hoiak BEZarik gabe ordaindu dira.

7. Araudia

EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOAN:

GIPUZKOAN:

Foru Araua 7/1996, uztailearen 4koa, Sozietateen gaineko Zerga arautzen duena.

- 116. artikulua: errentamendu finantzario kontratua, bete behar diren ukan-beharrak eta bere fiskalitatea definitzen ditu.
- 37. artikulua: aktibo finko material berrietan inbertitzeagatik lortu daitekeen kenkaria arautzen du, bere ukanbeharrak eta betebeharrak.
- 22. artikulua: aparteko mozkinak berrinbertitzeagatik lortu daitekeen zergapenaren atzerapena arautzen da.
- 11. artikulua: amortizazio koefizienteak aurrikusten dira.

10. Estatu espainiarrean BEZa arautzen duten arau ezberdinen 78. artikulua.

BIZKAIAN:

Forua Araua 3/1996, ekainaren 26koa, Sozietateen gaineko Zerga arautzen duena.

Aipaturiko artikulua berberak.

ARABAN:

Forua Araua 24/1996, uztailaren 5koa, Sozietateen gaineko Zerga arautzen duena.

Aipaturiko artikulua berberak.

NAFARROAN:

Foru Legea 24/1996, abenduaren 30koa, Sozietateen gaineko Zerga arautzen duena.

17. artikulua: errentamendu finantzario kontratua, bete behar diren ukanbeharrak eta bere fiskalitatea definitzen ditu.

63. artikulua: aktibo finko material berrietan inbertitzeagatik lortu daitekeen kenkaria arautzen du, bere ukanbeharrak eta betebeharrak.

36. artikulua: aparteko mozkinak berrinbertitzeagatik lortu daitekeen zergapenaren atzerapena arautzen da.

ESPAINIAR ESTATUKO GAINONTZEKO LURRALDEETAN:

Legea 43/1995, abenduaren 27koa, Sozietateen gaineko Zerga arautzen duena.

128. artikulua: errentamendu finantzario kontratua, bete behar diren ukanbeharrak eta bere fiskalitatea definitzen ditu.

21. artikulua: aparteko mozkinak berrinbertitzeagatik lortu daitekeen zergapenaren atzerapena arautzen da.

11. artikulua: amortizazio koefizienteak aurrikusten dira.